



PIERRE NARBAITZ
(1910-1984)

Egilea:

PIARRES XARRITON

SUSTRAIAK

Pierre Narbaitz, Nafarroa Beherean, Garazi aldean, Azkarateko herri xumean, 1910eko martxoaren 25ean sortua, Peaño Narbaitz eta Katixa Caillaba, Intxauspe baserriko nagusi-etxekandereen semea zen.

Aita Pierre, Ezpila deitu auzoko etxean, 1876an sortua, denek *Peaño* deitzen zutena, ezkontzaz etorria zen Intxauspera. Ama Katixa, 1886an sortua, Intxauspeko andregai, alabaina.

Intxauspea bera, Azkarateko burguan, elizatik bost urratsetan aurkitzen dugu. Baxenabarreko etxe anitzetan bezala, aitzineko ate zabalaren gaineko giltzarria, harri gorri ederrez, 1821ean egina da. Etxeko nagusi-etxekanderen izenen ondotik badatoz marrazturik hiru botoila eta hiru baso, xutik. Marrazki horrek adierazten omen baitu, bidegaineko ostatu izan daitekeela Intxauspea, lehen.

Euskal kantua apur bat ezagutzen duenari gogoratuko zaio beharbada, ostatu horretako alaba bat edo beste

menturaz «dendaria» zela eta, Napoleonen soldaduen gibeletik ingelesak hemen gaindi zebiltzalarik, hauen aire arrotz batean euskaraz kantatzen zela:

Intxauspeko alaba dendaria,
Goizean goiz bidean joailia,
Nigarretan, nigarretan, pasatzen du bidia,
Aprendiza kontsolatzailia, kontsolatzailia!



Pierre Narbaitz (1910-1984).



Azkarateko eliza eta hilerria.

Badakigu, ordea, Intxauspe izen asko badela, Azkaratetik kanpo ere, euskal herrietan.

Dena den, Narbaitz deitura, Erdi Aroan, Nafarroako paper zaharretan, aurki daiteke non nahi, baina, bestalde, XX. mendearen hastapenetan, Azkarate Intxauspeko Narbaitz familiak bost haur hauek izan zituen:

Lehena, Marie Narbaitz, 1908an sortu zen, Intxauspea zaharrean. Gero bera etxeko andregai izanki, Donazaharreko Laurent Bidegain, Ameriketara ibili amerikanoarekin ezkondu zen. Nagusi etxekandere gazte hauek zuten etxe berria eraiki, zaharraren bazterrean eta, hor hazi

zituzten lau seme alaba, Bidegain-Narbaitz, gaurregun hauen ondokoek erematen gaituztela laugarren belaunaldiraino. Anartean, Marie Narbaitz-Bidegain bera, 1995ean zendua da.

Bigarrena, Pierre Narbaitz, orain hemen aipagai duguna, 1984ko abuztuaren 16an hil zen.

Ehortzeta eguneko elizkizunean, Azkarateko pilota plazan eman hitzaldian, Jean Hiriart-Urruty bikario jeneralak ohartarazi zigun Andre dena Maria martxokoaren besta egunean sortu zela gure adiskidea eta Andre dena Mariaren abuztuko besta biharamunean zendu.



Peaño Narbaitz eta Katixa Caillaba, Intxauspeko nagusi etxekanderen erdian Pierre Narbaitz seme apeza.

Hirugarrena Jeanne Narbaitz, 1914ean sortua, 1915ean zendu zen.

Laugarrena, Claudine Narbaitz, 1918an sortua eta gaur oraino Luzaide Irauzketan ezkongabe bizi dena, osaba batek utzia dion etxean.

Bosgarrena Thérèse Narbaitz izan zen, 1920ean sortua eta 1930ean hila.

Nafarroa behearearen bihotz bihotzean, gutienetik bi mende iraun duen familia batean sortu eta hazi zen beraz, euskal eta kristau ohituren arabera, Pierre Narbaitz tipia, iragan mendearen lehen partean. Eta sustrai horiek ez zituen behinere ukatu.

Azkarate haren sorterriak ez du, egia erran, gaurregun, ez ostaturik, ez eskolarik, ez erretorerik; baina orduan horiek oro bazituen; Intxauspeko eta auzoko haurrak oro, 1914-18ko gerla denboran, beren herriko eskolan eta katiximan zebiltzan prestuki.

Pierrek meza laguntzen omen zion, haurrean ezagutu zuen Azkonegi jaun erretoreari. Azkonegi apeza, Urruñan bikari egonik, 1909 arte, Azkaraten hamaika urte egin zituen eta gero, 1920ean, Kostaldera itzuli zen Bidarteko erretore bezala, lekua utziz Azkaraten Darmendrail apezari. Dena den, Intxauspeko seme beretter tipiak, hamar- hamaika urte inguruan salatu

4



Ama Katixa, Marie eta Pierre, bi gehienekin.



Pierre, Marie, Thérèse, Claudine anai-arrebak.



Azkarate Intxauspeko sortetxea.



Intxauspeko etxe aitzina.

zior lehenik jaun erretoreari, handitu-
-eta nahi zuela berak ere apez izan.

Ohore baizitzaien semea apez
izatea, burasoek ez zuten ezetzik
erran, nahiz aitzak lur lanetako
laguntzaile bakarra galtzen zuten. Eta
sorterriko elizan jaunartu ondoan,
Intxauspeko Pierrek Belokeko bidea
hartu zuten, apezgaitegian
eskolatzeko.

BELOKEKO IKASTETXEAN

Jakin behar da, izaitez, Lapurdi
eta Nafarroa Behereko mugetan,
Hazparne, Bezkoitze, Ahurti eta
Bardozeko herrien artean, 200
hektareako lur eremu puska bat
bazela, XIX. mende hondarrean,
Beloke deitzen zena.

5

Belokeko pilota plaza bere ikasle-irakasleekin.



6

Aita Bastres Senpereko abade beneditarrak komentu eder bat eraiki zuen, 1876an. Basabazter horretako ontasun zabalaren erdian. XX. mende hastapenean, ordea, Frantziak bere fraide eta serora gehienak erresumatik kanporatu zituelarik, beneditarrek lekuak hustu behar izan zituzten eta Gipuzkoako Lazkaon aterpetzera joan ziren ihesi.

Larresoroko apezgaiak, aldiz, Frantziako Errepublikaren aginduz, beren ikastetxetik ohilduak izanik, Belokeko etxe hutsean kausitu zuten, behingotz, ihesleku egokia 1906an.

Horra beraz nola, 1914-1918ko gerlatik landa, 1921ean, Pierre Narbaitzek, 6.eko ikasketak hasi zituen Beloken.

Ez zukeen Azkarateko apezgaiak, ondoko hilabeteetan, Beloketik etxera berri gaiztorik ekarri, ezen, handik laster, Pattin Narbaitz (1912-1980) Ezpilako semea, bere kusi lehena, eraman zuen berekin, ikastegi berean, ikasketa beren egitera.

Aitortu behar dugu, haatik, zenbait urteren buruan, urrungo leihorretako deia entzun zuela Pattinek eta, orduan,



Beloken, 1914-18ko gerla ondoan, seminarioko buruzagia, Ernest Canton jauna bere irakasle lagunen erdian.

bi kusien bideak bereizi zirela. Pariseko Misionestegian sartu zen Ezpilako semea, eta Birmania gaineko misioetan, hogeita hamar urtez, higatu eta, etxerako bidean, Parisen, hil zen eta han berean ehortzi zuten.

Dena den, I. Mundu Gerla ondoan, Ernest Canton, Belokeko buruzagi berriak, Arnaud Abbadie (1843-1916) Larresoroko buruzagi zenak bere etxeari eman famaren heina atxikitzeko gai ziren lagunak bilduak zituen bere ondora: besteak beste, baziren hor, Joseph Garat Lorda eta Jean Pierre Vergès Hazpandarrak, Jean Amestoy Uhagun eta Leon Lassalle Bezkoiztarrak, Michel Etcheverry

Larresoroarra eta, bereziki, Jean Lohiague Lekuindar musikaria.

Zergatik aipa bereziki Jean Lohiague? Zeren irakasle horri baitio zor, gure ustez, Pierre Narbaitzek bere musikazaletasun apartekoa.

Nahiz beste zaletasunik ere erakutsi duen, geroztik, ez digu behinere berak salatu, norekin landu zuen bere letretako dohain aberatsa, Cantonekin, Elizagaraiekin, ala Lassallekin; ez eta nork zion bere filosofiako tirria zuzpertz, Joseph Garatek ala geroago prezatu ahal zituen Baionako Mathieu hazpandar apezpiku gai Thomistak, ala Tolosako Etcheverry Ziburutar jesuita idealistak.

7



1925-1926an, Belokeko azken urtean, Elizagarai jaun apezaren ikasgelan, Pierre Narbaitzek eta lagunek hartu zuten apez jantzia.

Badakigu ordea, 1925-26ko ikasturtean, 2.eko ikasketak egiten zituelarik, Albert Elizagarai Saratar irakasle finarekin, Pierre Narbaitzek, erabaki zuela, bizpahiru eguneko hausnarketen ondotik edo, san Iñazioen hiztegia erabiltzeko, «ariketetarik landa», apaiz jantzia hartzea, 20 bat ikaskideekin batean, beti egin ohi zen bezala, Omia Saindukari.

UZTARITZEKO APEZGAITEGIAN

Aldaira handia egin zuen apezgaitegiak, 1926an bada, Mgr Gieure Baionako apezpikuak, Uztaritzeko muino gain batean, eraikia zuen san Frantses Xabierrekoaren etxe xuri gorri ederrera joan baitzen seminarioa bere buruzagi, irakasle eta ikasle guztiekin.



Belokeko musika eskola, Jean Lohiague irakaslearekin bildua.

Uztaritzen egin zituen horrela Pierre Narbaitzek bigarren mailako azken bi urteak, gero, bere batxiler papera sakelan, hantik Baionako seminario handira joan aitzin.

Baionako ikastegi nagusian, 1928tik 1934ra, Azkarateko apezgaiak iragan sei urteren berri handirik ez dugu, bainan badakigu, azken urtean, diakonotza hartu eta, Uztaritzera bidali zutela estudio begirale eta han oroitzen ona utzi zuela ikasleen eta irakasleen artean.

Ikasle ohi batek kontatzen zuen berrikitan, aldeko lagunarekin solasean hatzemanik, Pierre Narbaitzek galdetu ziola zertaz zuten beren elkarriketa eta Donibane Ziburuko Ganixek ihardetsi: «Nik euskara behar nuela ikasi erraten nion eta, lagunak niri, ez zuela euskarak merezi!».

«Ez, ez sinets horrelakorik! Zu jarraik euskarari!» erran ziola orduan begirale gazteak, oroitzen da oraino beihalako haur hura, geroztik aita Xabier Iratzeder poeta bilakatu dena.

Baionako katedralean, apeztu zen Pierre Narbaitz, 1934eko uztailaren 15ean, Klement Mathieu hazpandar apezpikuaren eskutik.

Ondoko ikasturtean, Uztaritzeko seminarioan, beste urte bat egin zuen oraino, Joseph Garat kalonjearen zuzendaritzapean eta bere irakasle ohi askoren aldean, 6.eko gelaren ardura izanez, bere irakasle talenduak frogatzen zituela, bai eta beste talendu zenbait ere, denbora laburrez.

San Frantses Xabierrekoaren ikastegian irakaslekide izan zuen apez berriak Piarres Lafitte euskalzale ezaguna. Honek, bizpalau urte hartan, idazkari bezala, bazeraman *Gure Herria* aldizkaria eta, hain zuzen ohartzen gara, 1934ko zenbaki batean agertzen dela Pierre Narbaitzen euskarazko lehen artikulua.

«Solbezio» zen artikulua gaia, hots, Nafarroak aspaldian ospatzen duen irailaren 8ko besta eta Orreagako Andre dena Mariaren beila, Narbaitz kalonjeak, Garazi eta Baigorriko aldetik berpiztuko duen beila, bikario jeneral izanen delarik.

Ondoko urtean berriz, 1935ean, Piarres Lafittek sortzen du Eskualerrizaleen hilabetekaria, *Aintzina* eta, horko lankideen artean hona non ageri den «Ttuntun», delako bat. Baina nork asmatuko zuen Piarres Lafitte lthurralden «Nire makila» deitu kantuari doinu berri bat janzten zion musikari ixila, Pierre Narbaitz, «Ttuntun» bera, zela?

TOLOSAKO UNIBERTSITATEAN

Bizkitartean, Azkarateko apez gaztea bere buruzagiek igorri zuten Frantzia behereko Tolosara, 1935eko urrietan, hango fakultateetan filosofia ikasketak urrunago eramaitera. Han hiru urte iragan zituen, baina ez debaldetan, ezen lizentziatura bat erdietsi zuen, eskolastikoa, Institutu Katolikoak eskaintzen zuena eta beste bat, letretakoa, Unibertsitate Publikoak emana.

Beste gibelondorik izan zutela, herritik urrun, estudiante munduan iragan urte horiek, aise sinetsiko dute esperientzia bera egin duten gehienek.

Pierre Narbaitzekin Tolosako ikasketa horiek egin zituen haren lagun batek, Lamarins kalonje zenak, kontatu zidana salatzea, zilegi izanen ahal zait. Igande arratsalde batez, itzuli bat egiten ari zirelarik bi lagunak, Tolosako inguruetan, ohartu ziren, kirola zelai batera zoan jendetze pilarekin gurutzatzera zoazela, eta, orduan, bide erditik baztertzerako keinu egin zuen delako lagunak, baina Narbaitzek: «Ez, ez, goazen erdiko bidetik, bihar ere jakin beharko diaguk jendetzeari buru egiten!».

Eta Tolosatik lekora, laster etorri zitzaion Azkarateko apez gazteari, ageriko lan handien egiteko ordua, Baionako seminarioan Irakasle izendatu baitzuen Mgr Houbaut apezpikuak, 1938ko abuztuaren 17an. Eta gainera, doi-doia filosofiako irakasgaiak prestazen hasia zelarik, irakasle berria deitu zuten, urriko lehen egunetan, apezpikutegiko astekariaren ardura bere gain har zezan.



Pierre Narbaitz eta Pattin Narbaitz, bi kusi lehenak.

APAIZGAITEGIKO IRAKASLE

Handik laster ordea, Houbaut apezpikua hil zen eta haren orde etorri zen Baionara, Estrasburgoko Unibertsitatetik, Edmond Vanstenberghe Flandriarra, hasten ari zen II. Mundu Gerlako gure apezpikua izan zena.



Baionako Andre Mariaren katedrala. Bazterretik apezpikutegia.

Historialari eta teologo jakintsua baitzen, nahiz aski hotza omen, Baionako gotzain berria, ez genekike zuzen zer harreman izan zuen nazismoaren etsai argi eta ausart horrek, bere astekariaren arduradunarekin.

Dena dela guk, Pierre Narbaitzen ikasleok, luza gabe, ikusi genuen zein bidegile argia emana ziguten, alde batetik, san Tomas Akinokoaren gana hurbiltzeko gisan, Gilson, Sertillanges edo Maritainen mailako arartekoen bitartez eta, bestetik, mende berriko pentsamoldearen dastatzeko, heinean, Gabriel Marcel edo Henri Bergsonen idazlanekin harremanetan sartuz.

Eta orozbat, gure irakasleak ezagutarazi zuen ere laster bazter orotan bere kazetari talendu berezia. Moldiztegiko zuzendaria miretsia zegokion omen, zein erraz biribilkatzen zituen bere artikuluak, keinu batez, lantegiko mahai gainean.

Alta, komentatzen ziren gero, askotan, artikulu horiek. Hala nola, alemanak gutartean zirelarik oraino, hil baitzen Parisen Henri Bergson

12

pentsalaria, gogoratzen zait zein ederki goraiatu zuen Narbaitzek Judu handi hura apezpikutegiko astekarian.

Handik landa ordea, Baionako apezpikuaren prediku eta idazki bipil batzuentatik, 1942an, ixildu behar izan zen, alemanen aginduz, apezpikutegiko astekaria, eta gero, 1943ko abenduaren 10ean, Vanstenberghe apezpikua bera, zorigaitzez, hil zen supitoki.



Elizatik ateratzean.

Zenbait egun lehenago, Pierre Narbaitz gure irakaslea izendatua zuen «Ekintza Katolikoaren eta Obren Idazkari Orokor». 33 urte zituen eta, bere titulu berriarekin, apezpikutegian izan zuen geroztik, hogeit bat urtez, bere egoitza.

Gerla bururatzean, Savoia eskualdetik etorri zen Leon Albert Terrier Baionako apezpiku berria eta gizon gozo horren ondoan, lan handiak bideratu ahal izan zituen Pierre Narbaitzek Baionako elizbarrutian eta bereziki Ipar Euskal Herrian, Daguerre apeza hil ondoan, bikario jeneral kargua hartu zuelarik 1952an.



Ilobaren ezteiak.

Minbiziak eraman zuen ordea 1957an, Terrier apezpikua. Orduan etorri zen Bordeletik Paul Gouyon, eta beste zazpi urtez oraino bikario jeneral kargu bera izan zuen Narbaitz kalonjeak.

Baina Rennesera izendatu zutelarik Gouyon kardinala eta, 1964ean, Lyonetik Baionara bidali Mgr Vincent apezpiku berria, aitzineko bikario jeneralak utzi zituen apezpikutegiko administrazio lan guztiak. Horrek erran nahi du, aipatzen genituen Pierre Narbaitzen «lan handiak», 1943tik 1964ra doazen hogeita bat urteetan egin zituela.

ALDIZKARI ETA IRRATIETAN

Eta zer izan ziren bada lan horiek? Intxauspeko semearen ehortzeta egunean, Azkarateko plazan, egin zuen hitzaldian, Jean Hiriart-Urruty bikario jeneral zenak, eman zuen eliza-lan haien zerrenda, hots, elizako eskolen ardura, gizon, emazte eta gazte taldeen antolakuntza, elizkizunetako liburu, otoitz, irakurgai, prediku, kantu, soinu, apaindurak, beilak eta biltzarrak, *Apezpikutegiko astekaria* eta *Etchea* hilabetekeria, edozein areto edo irratitan eman hitzaldiak eta elkarrizketak.

13



Elizaren eta elizgizonen erdian.



Etxeko koinatarekin.

Eta xuhurregi balitzaio bezala egin zuen aipamen soila, edo xuhurtasun hori nolazpait zuzenetsi beharrez, Jean Hiriart-Urrutyk galdetzen zion jarraian bere buruari, bera ere bikario jeneral izendatu zutelarik, zer erran nahi ote zion Narbaitzek aholku bakar hau emaiten:

Zernahi egin dezazun, ez du orobat, inporta! Nahi duzuna egizu. Beharrezkoa ez da gauzen egitea, norbera den hura izaitea baizik!

Ez dugu hemen eztabaidan sartzeko gogorik, ez gure irakasle zenarekin, ez eta gure herritar lankide ohi maitagarriarekin, baina, gure ustez, egintzetarik da ezagutzen egilea eta beraz ikusten nor den nor.

Horra zergatik, Baionako apezpikutegian Terrier eta Gouyon bi gizon ezberdinen itzalean, Narbaitz kalonjeak, hogeit bat urtez Iparraldean egin dituen lanak, hain garrantzitsuak zaizkigun, haren nortasun aberatsaren alde zenbait ezagutzeko baizik ez balitz ere. Eta beraz merezi dute apur bat zehaztea.

Ez dut nehoiz ahantziko, herritar adiskide batek, duela aspaldi, egin zidan ateraldi hura : «Narbaitzek? –Euskaldungoa dik bere fedea, ez besterik».

Aitortzen dut, biziki gazterik hil zitzaigun Xobur Gelos apez hura, biziki maitagarria baina zorrotza zela eta, beharbada, geroztik ezagutu



Etxeko iloba tipiarenkin.

ditugun «apez abertzale» batzuen lerroan sartu nahi zuela haren solasak gure irakaslea.

Baina seguru naiz ez zela hemen orduan horrelakorik. Bazekien ongi gure irakasleak zer zen *Distinguer pour unir* eta berak irakasten zigun, Jacques Maritainen bidetik, nola zen «bereizten», baina bereizten, ez bereizteko, ez banatzeko; bateratzeko baizik. Fedea eta Kultura bereizi behar zirela, baina ez banatu. Eta batek bestea hazten ahal duela ikasi dugu zenbaitek Narbaitzen ganik.

Geroztik, Herriak jasan bilakaera izigarriaren ondotik, ezagutu ditugu eiki garaikide zenbait, beren aitzinekoen kultura edo fedea, ala biak, poxelu edo eragozpen dituztenak. Ez zen ez horietarik Azkarate Intxauspeko apeza. Honek ez baitzuen ahantzi ez ukatu, ez Herria, ez Eliza.



Haurrekin besta.

LIBURUGINTZAN

Zein atxikia zen bere sortetxeari eta etxekoei Arradoi mendiaren oinetan jaio eta hazi semea, zein barna sartuak zeuzkan erroak bere herrian eta, ber denboran, Euskaldunak zenbat nahi zituen beti aitzina akulatu, bera ezagutu dugunok ongi badakigu.

Atxikimendu horren lekuko daukagu lehenik, 1942-43an, seminarioan ginelarik, Larralde irakaslekidearekin, ikasle multzo bati *Aintzina* hilabetekariaren berpizteko eman zigun bermea.



Irratian hizlari.



Pariseko Euskal Etxea.

Gerla bururatzean, 1946an, gogoratu zitzaion Obren Idazkari Orokorrari, herri barneko haurrentzat, euskal udalekuak antolatzea. Marcel Mendiboure apez gazte zenaren inguruan apezgai zenbait deitu zituen begiraletzat eta Kostaldeko ikastetxeak baliatu aterbetzat. Ez zen orduan aipu euskararik sartzea eskolako programetan eta gure apez nagusiak asmatu zuen udan, jolastuz, eta hirietan, gure kultura apur bat eskaintzea euskaldun umei euskaraz.

Lehen euskal udalekuetan sortu *Euskaldun xoriak* izeneko mugimendu berriaren karietara, prestatu zituen ere

Narbaitez gazte zenbaiten laguntzarekin, laneko tresna zenbait, denak euskaraz.

Hona lehenik *I. Elizako Liburua, Eskualdunak eskuaraz* lemapean, 1948an, atera zena.

Buraso euskaldunei bere asmoen eta aholkuen berri emaitako, 1947tik hona, 30 bat urtez bederen, hilabete oroz argitaratu zuen *Etchea* hilabetekaria.

Piarres Arradoy-en izenordea berriz agertzen da 1948an, Parisen atera berri den Jesusen historiaren itzulpena argitaratzen delarik *Ichtorio ederrena* deiturapean.



Kattalinen gogoetak, 2. edizioa.



Etxeko gozoa.



Hazparneko herria, eliza, lanbide ikastegia.

1950ean aldiz, Baionako Obren Idazkaritzatik heldu zaigu paretako *Euskal egutegia*, bizpalau urteren buruan, *Euskaldun Gazteriaren* gain Idazkariak berak ezarriko duena. Seaskak, beste itxura batean, geroztik sortu duenarekin lehiatzen dabila oraino gaurregun Iparraldean.

Euskaldun Xorientzat lehenik eta gero *Euskaldun Gazteriarentzat* ere agertu zen ere Baionan, 1951n, Piarres Arradoyek prestatuturik, *Charamela* kantu liburua, arrakasta ederra izan zuena eta geroztik bi edizio bederen izan dituen.

19



Haurridekin Donostiako itzulia.

HAURREN ETA GAZTEEN KEZKA

Eta orozgainetik, Narbaitz bikario jeneralak Josep Camino apez gaztearen gain eman zuelarik Iparraldeko haurren mugimenduaren ardura osoa, honi esker agertu zen, lau koloretan eta bi ediziotan, Donostiako Valverde baitan, Joseba Elozegi eta haren lagun multzo baten laguntzarekin, *Pan-Pin*, euskarazko haurren lehen aldizkaria. 1960tik 1964ra, bere zuzendariak beste lan bat harturik, haren ordezkioak uko egin zion arte, lau urte iraun zuen *Pan-Pin*-ek.

Hor dituzu aurkituko, ezin hobeki apaindurik, Jean Etchepare Landerretche, Daniel Landart, Mixel Itzaina, Marilu Arbelbide, Pettan Maitia, Leon Leon, P. Lafitte, T. Monzonen, ipuin, istorio, kantu, hitz-joko, eta jostetak.

Eta gainera, zilegi izanen ahal zait salatzea, Hegoaldearekilako lankidetzaren aitzakia baliatuz, Josep Caminoren *Pan-Pin* horrek eta nihonek kudeatzen nuen *Gazte* hilabetekariak, zutela estreinatu Iparraldean, biek batean, Euskaltzaindiaren grafia, «ch» ren orde erabiliz «x» letra, geroztik denetan nagusitu dena.

Dena den, 1944tik 1964ra iraun duen hogeituro urteko epe horretan ezagutu dugun euskal kulturaren iratzarraldian, euskal kulturaren eta euskararen ardura norbaitek izan baldin badu Baionako elizbarrutian, ez da dudarik hura izan dela Pierre Narbaitz kalonjea.

Eta horren berri izan zuketean, orduan, mugaren gainetik, Bilboraino, ezen, 1960ko urtarrilaren 29an, Piarres Lafittek proposaturik, Pierre Narbaitz izendatu zuela, Oxobi zenaren orde, euskaltzain oso, Euskaltzaindiak, irakurtzen dugu *Plaza Barri*-ko artxiboetan.

Zorigaitzez osasun arazo batzuen gatik edo, Baionako bikario jeneralak ez baitzuen erakundearen bilkuretara etortzerik izan bi urte eta erdiren buruan, 1962an, Jean Haritschelhar izan zen ondoko izendatua.

Ez zen ordea horrengatik lanetik gelditu Piarres Arradoy, ez idazlanetik, ez euskaltzalekilako harremanetarik, hala nola, 1955ean argitaratu *Kattalinen Gogoetak*, haren liburu arrakastatsua, aita Villasantek, 1966an, Gipuzkeraz jarri baitzuen.

Bizkitartean bere euskara sotil eta goxoari berari baino atxikiago zen oraino Narbaitz apezka, euskaldun jendeari: bere etxekoei lehenik, gero,

jadanik ohartu garen bezala, adin orotako herritarrei, bereziki herriaren geroa ziren haur eta gazteei. Hori agertzen zaigu, ez bakarrik haietaz edo haientzat berak egin artikulu, kantu ala hitzaldi guztietan, baina haien zerbitzuko asmatu zituen obretan, orozgaintetik. Haren herri lanak deitzen ahal genituzke menturaz.

Baserriko seme zen, erran dugunaz, Intxauspeko apeza eta, nekazari mundua zen haren hurreko mundua, gero mundu horren bilakaeraren lekuko izan zen adinik ederrenean, baina ez zen besoak kurutze gelditu bazterrari so, herritarrek jasan aldaketei ihardokitzeko zerbait laguntza emaiteko partez.

Gauza jakina da, II. Mundu Gerla ondoan, Europa mendebaleko baserrietarik, mutil eta neskak, sorterria utzirik, saldoka deserritu behar izan zirela. Gure Iparraldetik, zenbait beren aitzinekoen bidea hartu baldin bazuten ere Ameriketara buruz, beste anitzak Parisera joan zitzaizkigun.

PARISEKO EUSKAL ETXEA

Orduan bada, Baionako bikario jeneralak, 1953an, Sorbonara bidali ninduelarik istudiotara, Parisen aurkitu nuen euskaldun istudiant baino biziki herritar langile edo neskame gehiago. Laster bildu ginen multzoak amestu zuen orduan, Pariseko euskaldunek, Pariseko Euskal Etxea sortzea. Baionara itzuli nintzelarik, erran behar dut, arazorik gabe zoazen ene ikasketez baino gehiago, Pariseko euskaldun gazteen arrangurez genuela solas, Narbaitz kalonjearekin.

Ondoko urtean berean, Feltin Pariseko kardinalearekin hitzartzen izan ginen, Terrier Baionako apezpikuaren izenean, Narbaitz bikario jenerala eta biok, eta errazki erdietsi baimenarekin sortu zen 1955ean, denen artean eraikitako etxea, denen artean ordaindu ere zena. Gaurdaino XVI.eko Duban karrikan dagoen Pariseko Euskal Etxeak badu, mende erdi batez, zenbait euskaldun aterbeturik.

Baionako bikario jeneralak igorri baldin bazion 1955ean Pariseko etxeari bere lehen apeza, Auguste Larre bezkoiztar zena, ez zituen halere ahortzi beste euskaldun batzuek, Ipar Ameriketara joanak zirenak eta euskaldun apez baten laguntza atseginekin hartuko zutenak: horra

zergatik, 1960an, Bainako apezpikutegiak bidali zuen Estatu Batuetara, lehen aldikotz euskaldun artzainen artzaina, Jean Leon Luro, Ahatsa Zakutegiko apeza.

Anartean nihaur, Baionara itzultzean, *Euskaldun Gazteriaren* aholkulari izendatu ninduen Narbaitz kalonjeak. Eta hor, alde batetik, Aljeriako gerlak orduan gogorki inarosten zituen gazteen arazoekin izan banuen zer pentsa eta zer egin, beste batetik laborari gazteen formazioaz ere behar izan nuen berehala arduratu, zeren eta Irakaskuntzaren zuzendari bezala, bikario jeneralak ari baitzuen ordukotzat, apez eta serora zenbaiten laguntzarekin, gure baserrietako nagusi etxekandere gaientzat, Maulen, Donapaulen eta Garazin gaindi, Iparralde osoan, nekazari eta menaiu eskola sare bat hedatzen. Lan horri esker, gure eskualdeko laborantzak du agertzen gaurregun hain indartsu bere bizinahia.

Bazuen bizkitartean Narbaitz kalonjeak, beste asmo handi bat oraino, bideratu nahi zuena, herriaren onerako. Nahiz ez ginen ez hura ez ni teknika munduan, hainbat argituak, banekien, berak erranik, solasetan ibilia zela, bai jesuitekin, bai lassaliarrekin, Baionan berean lanbide eskola bat irekitzeko xedetan.

Baina zer ustegabea enetzat, 1959ean martxoko san Josepe bestakari, deitu nindutelarik apezpikutegitik, jakinarazteko, niri zegokidala, lanbide eskola berriaren eraikitzea, Hazparne ene sorterrian.

Zergatik ez aitor, uste baino zailagoa gertatu zitzaidala ene eginkizuna, nahiz deitu ninduten bi gizonak, Gouyon apezpikua eta Narbaitz kalonjea, hurbil nitueno banekien nori mintza. Zorigaitzez, bizpahiru urteren buruan, batek eta besteak Baionako beren karguak utzi zituztelarik, etorri ziren beste bizpahiru urte gogorrenak, nihaur amore emaitera behartu nindutenak.

Dena dela, berrogei urteren buruan, Hazparneko ikastegia, Narbaitz apezari hainbeste zor diona, eta jadanik 3.000 ikasle moldatu dituen, Jainkoari esker, beti alha da, sekula baino aitzinatuago ibilki.



Etchea, emazteen hilabetekaria.

LITURGIA BERRIA


1964ko uztailetik aitzina ordea, apezpikutegiko bere kargu guziak utzi zituelarik, 54 urte baizik ez zituelarik Narbaitz kalonjeak, ez zion, jakina, uko egin lanari.

Lehenik, Baionako katedralearen itzalean hartu zuen bizitegi umiletik, kristau emazteen aholkularitza eta *Etchea*-ren zuzendaritza atxiki zuen oraino bospasei urtez, baina orozgaintetik, urte haietan, elizako liturgian kontzilioak ekarri aldaketa

garrantzitsuei begi eman zien eta bere apezlagunak argitu eta lagundu zituen handizki.

Lehen ere, elizako liburuez bestalde, berak prestatu zituen kantu berri zenbaiten hitzak eta aireak, hala nola, *Goazen mezara!*, *Har otoi Jauna!*, *Oi, san Frantses Jatsukoa!*, edo *Lurdeko lorea!*

23



P. Narbaitzen 1948ko eta 1960ko bi *Elizako Liburuak*.

Eta gainera, bikario jeneral bezala, egundainotik bere oniritzia eman zion, aita Iratzeder eta Lertxundiren inguruan, aspaldian Belokeko komentuan euskaltzale zenbaitek zeramaten kantika eta itzulpen lanari.

Orain ordea, sartzen da Narbaitz bera, sekulan baino barnago, lan sail horretan eta, 1965ean, argitaratzen du lehen euskarazko diskoetarik bat: *Meza laburra, organoa lagun.*

Baina ustegabeko eztabaida sortzen da elizetan, jakiteko, latin hizkuntzak uztera doan lekua, zeinek hartuko duen, euskarak ala erdarak. Xalbador handiaren bertsu zorrotz batzuek erakusten digute nolakoa zen apez zenbaiten jokaera, 1960/70eko hamarraldian, Iparraldean.



Orria, (778) Orreagaren historia egiazkoa.


Eta gaurregun, hizkuntzen gerla horretan, politika bateraturik ez izanez nabari gure eskualdetan, Herriko mintzairak ez du oraino hartu, ez elizan, ez gizartean, hartze duen leku egoki eta zuzena.

Gaia korapilatsua dela entzuten da batzuetan, baina holakoei ihardets geniezaieke irakur dezaten arren, *Gure Herria* aldizkariaren 1966.eko urriko zenbakian, Narbaitz kalonjeak argitaratu hitzaldia.

Urretxuko liturgia batzarrean, aitzineko uztailaren 9an, aurkeztua zuen lan eder hori eta San Frantses Xaberrikoaren adibidea eskainiz, bere fedelagunei eskatua, ez zezaten, otoi, erdaldun galduen aitzakiaz, herriko euskaldunen hizkuntza arbuia ez gutiets.



San Frantses Jatsukoa, Uztaritzeko apezgaitegitik.



Maurice Ravel (1875-1937) musikari euskaldun zilargina.



Le Matin Basque, Baskoindar arbasoen historia.



Blas Pascal en Gogoetak, eskuararat itzuliak.



Luzaide Irauzketa, Claudine Narbaitzen etxea.



Elizaren itzalean Intxauspeko hilobia.




Azkarateko eliza hutsik.

Eta handik hara, aitzineko arbasoen dei hori entzun balu bezala, hona non, Baionako egoitza utzirik, gure kalonjea badoan Luzaide Irauzketako bere arreba Claudine Narbaitzen etxean bizitzera.

Erran behar da, hain maite duen Orreagako Ama Birjinaren ganik hurbiltzen dela horrela, bai eta ere Nafarroako erreinu zaharreko artxibategietarik. Eta horri esker, Piarres Arradoyek, bere azken urteetan, Luzaidetik bidaliko dizkigu ikerketa sakonen fruituak. Ez gara xehetasunetan sartuko, baina emanen ditugu bakarrik haren idazlanak bi sailetan: hona, alde batetik, hiru euskaldun ezagunen biografiak eta, bestetik, euskal herriko historiaz diharduten beste hiru liburuak.

Nabarra, (824-1524)
euskal erreinu
zaharraren historia.



BIOGRAFIAK ETA IDAZLANAK

Biografien sailean lehen liburua, Mixel Garikoitz Ibarreko sainduaren bizia besterik ez da, Jean Etcheberry haren kusi apezak 1882an idatzia, geroztik aita Galdos jesuitak, 1923an, gipuzkeraz jarria. 1967an, *Gure Herria* aldizkarian, ohar batzuez aberastu zuen Pierre Narbaitzek eta, horrela berrargitaratu.

Bigarrena aldiz, San Frantses Jatsukoaren bizia da. Piarres Arradoyek euskaraz idatzi zuen eta gero, berak egin frantses itzulpenarekin, Donostian atera zen 1966an.

Zinez aberatsa da, haren beste guzien artetik, euskal liburu hau, eta ez bakarrik euskaldun saindu handienaren ezagutza egiten dugulako, baina areago, liburu egilearen barneko eta biziko berri hor berean aurki dezakegulako.

Lehen orrialdetik beretik, jakiten dugu alabaina, zein izan diren idazlearen «bi helburu nagusiak, beharbada biak ausartegiak, bat espiritualak, bestea linguistikoa, biak barkakizun izanen zaizkienak arauz, san Frantsesi eta irakurlei!».

Damurik ez baitigu gure irakasle zenak zehaztu, zein izan daitezkeen, Etchepare medikuak erranen zukeen

bezala, biziko helburu ezberdinen aurrintzeak dakartzan kalteak!

Hirugarren biografia, Maurice Ravel (1875-1937) musikagile ospetsuaz idatzi zuen Pierre Narbaitzek eta, argitaratu 1975ean, haren mendeurrenkari, frantsesez, Donibane Ziburuko «zilarginaren» euskaltasuna agerrian jartzeko gisan, euskaldunen eta beste guzien aitzinean.

Ordu eta egun gehiago eskatu zizkion ordea Luzaideko ermitari Euskal Herriko historia orokorraren ikertzeak, baina bere lan jarraikiari esker, hiru liburu gotor ontu eta argitaratu zituen lauzpabost urte barne.

Le Matin Basque, atera zuen lehenik Parisen, Guénégaud baitan, 1975ean, Baskoindar zaharren historia frantsesez emanez, gero berriz 1978an, mendeurrenkari, Orreagako batailaren zehaztasunak eskaini zituen, *Orria* titulupean eta, 1978ko urte berean, argitaratu zuen, 640 orrialdeko liburua, *Nabarra, ou quand les Basques avaient des rois* (824-1524), deitzen zena, euskaldunen erreinu zaharraren 15 mende luzeetako historia aski xeheki kondatzeko gisan.

Baina lan horiez guztiez bestalde, ez dezaket ahantz itzulpen lan bat, Pierre

Narbaitez Luzaiden abiatu eta, 1980ko agorrilaren 13an bururatu zuena. Ezen ene irakasle ohiak berak, liburua eskaintzean, gogoratu zidan, nihonek iradokia niola, 1979ko maiatzean, lan horren egitea, hots, Blas Pascal-en *Gogoetak* eskuararat itzultzea.


Zorigaitzez, halako presa batean bezala egin lana, Narbaizen azken liburua izan zen.

Handik lekora, orain hainbeste aipu den Alzheimeren eritasunak hartu zuen gure adiskidea eta, anitz

pairaturik zenbait hilabetez, 1984ko abuztuaren 16an, zendu zen, bere 75. urtean.

Ondotik, Azkarateko pilota plazan, jendetze handiaren partehartzearekin eta erretzeko beroarekin, Mgr Vincent Baionako jaun apezpikuak eman zuen ehortzetako meza eta Jean Hiriart-Urruty, bikario jeneral euskaltzainak egin hitzaldia.

Orain Pierre Narbaizen gorputza, elizaren bazterreko hilerrian datza Intxauspeko hilobian.



P. Narbaiz-en atzaparra.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Pierre Xarriton.*
- *Nar baitzen familia: Bidegain, Equiza eta Pourquoi.*
- *Jean Pierre Ouret.*
- *Pierre Andiazabal.*
- *Labatsuzan.*
- *HABE aldizkaria.*
- *Joseba Olalde argazkilaria.*

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2001eko maiatza
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Argazkilaria:	Joseba Olalde
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	Rali, S. A. Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao (Bizkaia)
Inprimaketa:	Estudios Gráficos Zure, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24 - 48950 Erandio Goikoa (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1691-3 (Obra osoa) 84-457-1695-6
L.G.:	BI-1326-01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística